VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA-RENTZAT, EUSKAL FILMATEGIA FUNDAZIOARENTZAT ETA KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA, SA-RENTZAT FILMAK AZPIDAZTEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. **KONTRATUAREN XEDEA**
2. **ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA**
3. **MANDATUAK**
4. **GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK**

IFK-CIF A20965414

Victoria Eugenia Antzokia, SA
Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA-RENTZAT, EUSKAL FILMATEGIA FUNDAZIOARENTZAT ETA KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA, SA-RENTZAT FILMAK AZPIDAZTEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA-rentzat (hemendik aurrera, VICTORIA EUGENIA), EUSKAL FILMATEGIA FUNDAZIOArentzat (hemendik aurrera, FILMATEGIA) eta KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA, SA-rentzat (hemendik aurrera, KGNZ) filmak azpidazteko zerbitzuak eskainiko dituen enpresa bat aukeratzea da kontratuaren xedea, baldintza-agiri honetan, administrazio-klausula partikularren agirian eta haren karatulan jasotakoarekin bat.

Erakunde horiek azpidazteko zerbitzuak behar dituzte zuzenean edo koprodukzio bidez antolatzen dituzten jardueretan proiektatutako lan zinematografikoetarako; horien artean, hauek:

1. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea. VICTORIA EUGENIAk antolatzen du urriko azkeneko eta azaroko lehenengo astean, eta urtean 25 emanaldi inguru azpidatzi behar izaten dira.

2. Giza Eskubideen Zinemaldia. VICTORIA EUGENIAk eta Donostiako Udalak antolatzen dute apirilean, eta urtean 15 emanaldi inguru azpidatzi behar izaten dira.

3. VICTORIA EUGENIAk, KGNZk eta FILMATEGIAk antolatutako urteko zine-programazioa:

   - Nosferatu zikloak. VICTORIA EUGENIAk antolatzen du, eta urtean 20 emanaldi inguru azpidatzi behar izaten dira.

   - KGNZk antolatutako zikloak. Urtean 25 emanaldi inguru azpidatzi behar izaten dira.

   - EUSKAL FILMATEGIAk antolatutako zikloak. Urtean 18 emanaldi inguru azpidatzi behar izaten dira.

4. Emanaldi bereziak. VICTORIA EUGENIAk antolatzen ditu, beste eragile batzuekin lankidetzan. Urtean 10 emanaldi inguru izaten dira.

5. FILMAZPIT programa. Zineuskadi Elkarteak finantzatutako eta VICTORIA EUGENIAk kudeatutako programa, euskarazko azpitituludun zinema sustatzeko. Urtean, 8 programa inguru azpidatzi behar izaten dira.

Oro har −zerrenda mugatua ez den arren−, areto hauetan proiektatuko dira filmak: Victoria Eugenia antzokia, Antzoki Zaharra (VICTORIA EUGENIAko ekipamenduak), Tabakalerako zinema-aretoak (KGNZren jabetzakoak) eta Bilboko Arte Ederren Museoa.

IFK-CIF A20965414

Victoria Eugenia Antzokia, SA
Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Hau da kontratuaren CPV kodea:

- 92100000-2 – Zinema- eta bideo-zerbitzuak.
- 79530000-8 – Itzulpen-zerbitzuak.

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

a) HIZKUNTZAK

Oro har, euskarazko eta gaztelaniazko azpitituluak eskatuko dira. Salbuespen gisa, beste hizkuntza bateko azpitituluak eskatu ahal izango dira (normalki, ingelesa edo frantsesa).

Euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa izan ohi dira abiapuntuko hizkuntzak. Hala eta guztiz ere, abiapuntuko hizkuntza lau horietatik desberdina den beste bat izanik ere, zerbitzua eskaini beharko du kontratistak.

IFK-CIF A20965414

b) AZPITITULUEN PROBA:

Kontratu honek xede dituen azpidazteko zerbitzuak hiru motatakoak izan daitezke:

- Azpititulu elektronikoak: azpituluak zuzenean ezartzen dira aretoan.
- Azpititulu digitalak: azpituluak txertatuak dituen proiekzio digital baten kopia sortzen da, formatu hauetako batean: DCP, bereizmen handiko artxiboa edo DVDa edo Blu-ray-a.
- Amaierako SRT artxibo bat entregatzen da, erakunde kontratatzaileak erabiltzeko prest dagoena.

Azpititulu elektronikoen kasuan, esleipendunak eskainitako zerbitzuaren barruan, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Softwarea duen ordenagailu eramangarri bat izatea.
- Proiekzioan zehar azpituluak modu egokian bidaltzen direla gainbegiratzen duen teknikari bat egotea, etengabe, proiekzio-kabinan.

  Aurrez, pertsona horrek proba bat egin beharko du *in situ*, eta kabinan egon beharko du proiekzio publikoa hasi baino 30 minutu lehenago.

VICTORIA EUGENIAk, FILMATEGIAk eta KGNZk baliabideak dituzte azpititulu elektronikoak aldi berean hiru aretotan proiektatzeko.

c) AZPITITULU IRISGARRIAK:

Victoria Eugenia Antzokia, SA
Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Azpitituluirisgarrien zerbitzua erakunde kontratatzaileari eskaintzerako orduan, esleipendunak 153010:2012 EB araua bete behar du ("Gorren eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako azpitituluak"). Arau horretan, ikus-entzunezko edukiak irisgarriago egiteko azpitituluak nola aurkeztu behar diren zehazten da.

3. MANDATUAK

Erakunde kontratatzaile bakoitzak zehaztuko du zer material azpidatzi behar diren.

Erakunde kontratatzaile bakoitzak mandatuaren idatzizko eskaera egin beharko du. Eskaera horretan, azpidatzi beharreko filmaren/filmen izenburua/k eta kontratatu nahi den zerbitzuaren modalitatea jaso beharko dira.

Zerbitzuaren barruan, prestazio hauetako batzuk edo guztiak daudela ulertzen da, kontratazio modalitatea kontuan izanda:

- Azpitituluak euskarara, gaztelaniara, ingelesera edo frantsesera (edo, salbuespenez, beste hizkuntza batera) itzultzea.

- Azpituluen sinkronizazioa-egokitzapena.

- Aretoko proba-aurkezpena (azpititulu elektronikoen kasuan) edo azpidatzitako proiekzio-kopia bat sortzea (azpititulu digitalen kasuan).

IFK-CIF A20965414

Hauek dira kontratazio modalitateak:

- Azpititulu elektronikoen edo digitalen zerbitzuarekin lotutako prestazio guztiak kontratatzea; zehazki, hauek: azpitituluak euskarara, gaztelaniara, ingelesera edo frantsesera (edo salbuespenez, beste hizkuntza batera) itzultzea, azpituluen sinkronizazioa-egokitzapena eta aretoan proba-aurkezpena egitea edo azpidatzitako proiekzio-kopia bat sortzea.

- Azpititulu digitalen zerbitzuarekin lotutako prestazio hauek kontratatzea: azpituluak euskarara, gaztelaniara, ingelesera edo frantsesera (edo salbuespenez, beste hizkuntza batera) itzultzea, azpituluen sinkronizazioa-egokitzapena eta erakunde kontratatzaileak erabiltzeko prest dagoen SRT artxibo bat entregatzea.

- Azpituluen sinkronizazioa-egokitzapena eta aretoko proba-aurkezpena edo azpidatzitako proiekzio-kopiaren sorrera kontratatzea. Itzulpena esleipendunak egin ez duenean erabiliko da kontratazio modalitate hori.

- Aretoko proba-aurkezpena edo azpidatzitako proiekzio-kopiaren sorrera kontratatzea. Kontratazio modalitate hori erabiliko da erakunde kontratatzaileetako batek esleipendunari (i) itzulitako artxibo bat edo azpititulu egokituak-sinkronizatuak dituen artxibo bat entregatzen dionean edo (ii), karatularen 11.2 puntuaren arabera, esleipendunak kontratuaren betearazpenari adskribatutako azpituluen bildumakoak direnean.

Victoria Eugenia Antzokia, SA
Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Oro har, eta gutxienez, proiekzioaren data baino 15 egun lehenago egin beharko du mandatua erakunde kontratatzaile bakoitzak. Hala eta guztiz ere, salbuespenezko kasuetan, epe hori baino aurrerapen gutxiagorekin egin ahal izango du mandatua erakunde kontratatzaile bakoitzak, baina epe horrek ezingo du izan, inolaz ere, 48 ordutik beherakoa.

Halaber, erakunde kontratatzaile bakoitzak beharrezkoa den materiala (bideo-fitxategia eta oinarrizko testuak, hala badagokio) entregatu beharko dio esleipendunari, gutxienez, proiekzio-data baino 15 egun lehenago. Hala eta guztiz ere, salbuespenezko kasuetan, epe hori baino aurrerapen gutxiagorekin entregatu ahal izango du materiala erakunde kontratatzaile bakoitzak, baina epe horrek ezingo du izan, inolaz ere, 48 ordutik beherakoa.

Adostutako bitartekoen bidez entregatu beharko ditu kontratistak mandatuari dagozkion lanak, proiekzio-egunaren bezperako 17:00ak baino lehen (gehienez).

Lizitatzaileek epe horiek murriztu ahal izango dituzte beren eskaintzetan, eta erakunde kontratatzaileak materialak aurrerapen gutxiagorekin entregatzeko aukera edo mandatuari dagozkion lanak zehazturiko ordua baino lehen entregatzeko aukera eskaini ahal izango dute. Hori egiteko zer neurri hartuko dituzten ere zehaztu beharko dute.

IFK-CIF A20965414

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Lizitatzaileak konpromisoa hartu beharko du kontratuaren betearazpenari, gutxienez, giza baliabide hauek adskribatzeko:

- <u>Koordinatzaile bat:</u>

Esleipendunak koordinatzaile bat adskribatu behar dio kontratuaren betearazpenari, zeinak, gutxienez, hiru urteko esperientzia izan behar baitu filmak azpidazteko zerbitzuak koordinatzeko lanetan.

Hauek izango dira koordinatzailearen funtzio bereziak:

- Kontratatutako zerbitzuen betearazpena koordinatu eta erakunde kontratatzaile bakoitzak emandako jarraibideak betetzea.
- Erakunde kontratatzaile bakoitzarekin lankidetzan aritzea, kontratua indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
- Erakunde kontratatzaile bakoitzak deitutako bileretara joatea.
- Erakunde kontratatzaile bakoitzak eskatutako antzeko beste edozein lan egitea.

Edozein arrazoi dela medio beste koordinatzaile bat izendatuz gero, erakunde kontratatzaile bakoitzak onetsi beharko du izendapen hori.

Victoria Eugenia Antzokia, SA
Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

- Kabinako hiru proiekzio-teknikari:

Esleipendunak kabinako hiru teknikari adskribatu beharko dizkio kontratuaren betearazpenari, zeintzuk, gutxienez 20 saioko esperientzia izan beharko baitute kabinako azpitituluen proiekzioan eta azpidatzitako hizkuntza (euskara, gaztelania, ingelesa edo frantsesa) ezagutu beharko baitute –C1 maila edo baliokidea–. Erakunde kontratatzaile bakoitzak egoki iritzitako moduan egiaztatu beharko da esperientzia hori.

Kontratistak bermatu behar du, gutxienez, hiru emanaldi eskaini ahal izango dituela, aldi berean, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Frantsesaren kasuan, nahikoa izango da emanaldi bakarra bermatzea.

Berariaz adierazten da esleipendunaren kargura izango direla kabinako proiekzio-teknikarien joan-etorri, ostatu eta dieta arloko gastuak, baldin eta halakorik badago.

- Itzultzaileak:

Esleipendunak itzultzaile talde bat adskribatu beharko dio kontratuaren betearazpenari. Talde hori osatzen dutenek filmen jatorrizko hizkuntzak ezagutu behar dituzte.

Euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa izan ohi dira abiapuntuko hizkuntzak. C1 mailako edo maila baliokideko ezagutza egiaztatu beharko da, erakunde kontratatzaile bakoitzak egoki iritzitako moduan.

Halaber, esleipendunak konpromisoa hartzen du honako bitarteko material hauek adskribatzeko kontratuaren betearazpenari:

- Ekipamendua

Kontratistak kontratuaren betearazpenari adskribatu beharko dio azpidazteko zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoa den ekipamendua: itzulpenak egiteko, sinkronizazio-egokitzapenerako eta proiekzio digitalaren kopiak sortzeko ekipamendua. Horrez gainera, azpititulu elektronikoen zerbitzua areto bat baino gehiagotan aldi berean eskaini ahal izateko softwarea duten hiru ordenagailu eramangarri adskribatu beharko dira kontratuaren betearazpenera.

Donostian, 2022ko otsailaren 10ean

Jaime Otamendi Muñagorri
Victoria Eugenia Antzokia, SAren Kudeatzailea.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik:
JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2022.02.10 14:57:33 +01'00'

IFK-CIF A20965414

Victoria Eugenia Antzokia, SA
Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 150 **E.** donostiakultura@donostia.eus
www.donostiakultura.eus